Igarkizunak

Neska batek ogeitamaika sagar eukazan eta goiz batez iru mutil juan yakozan barriketan jardutera bata bestearen ondoren.

Lenengoari ~~erdi~~ ogeitamaikatik erdiak eta erdi zatitu barik, emon eutsozan.

Bigarenari be, beste erdiak eta erdi zatitu barik

Irugarenari be, ~~geratzekuo~~ erdiak eta erdi zatitu barik.

Oriei guzti oreik emon ondoren, berekat iru geratu yakozen.

Zelan izan daike ori?

Lenenguari 16; bigarenari 8; irugarenari 4.

Ardaudunarena.

Ardaotan izan eta pantera ardaua lepoan ebala etorian bat eritik. Beste bat ardaotara oyan iru azunbrako ta 5 azunbrako bota birekin. Erian ez egoala ardaorik geiago ta erdia panteradunak besteari emotea bururatu yakuen. Baina beste ontzirik ez euken eta zelan neurtu lau azunbrak?

Irukoa bete eben panteratik. Gero irukoa bostekora isutu eben. Barriro be, bete eben irukoa ta bostekora isutu. Baina bostekoak azunbre bi artu euzen len eukazan iru ta

Orduan bostekoa ustu eben kantarakora; irukoan geratu zan bakaŕa bostekora. beteta bariro irukoa ta oŕa oi lau azumbra.

---

Aŕautzadunarena.

Aŕautzak buruan eroyazan neska bateri siŕikla asi ta aŕautzak bota furutik ete apurtu egin eutsezan mutil koro bateuk.

Iraitiño zenbat aŕautza siran apurtu eutsezanak esateko ta ordaiñduteko eutsezala esan eutsen mutilek.

— Ez dakit ba — esan eutsen neskeak — binaka, iruraka, launaka, bosnaka ta seiñaka zenbatu dodaz ta beti bat sobre geratzen izan yate. Zazpinaka kontau dodaz ta justuk egin-egiñak.

---

25 dozena, 301 aŕautza.